



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA, LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUARENA

122-ZEH-2015 LEA/AVC espedientea

Aurkibidea:

| | |
|--|----|
| I. AURREKARIAK..... | 1 |
| II. ERAKUNDE INPLIKATUAK | 4 |
| III. EGITATE FROGATUAK | 6 |
| IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK..... | 12 |
| 1. Subjektu inplikatuaren izaera juridikoa | 12 |
| 2. Enkarguen izaera juridikoa..... | 13 |
| 3. Salatutako jokabidearen azterketa | 15 |
| A. Udalen aurkako salaketa..... | 16 |
| B. Kuadrillaren aurkako salaketa..... | 17 |
| 4. Ebazpena emateko eskumena duen organoa..... | 18 |
| V. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA..... | 19 |

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, bokala

Enara Venturini Álvarez andrea, bokala

Lourdes Muñoa Corrales andrea, idazkaria

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), 2019ko maiatzaren 28ko bilkuran, goian adierazitakoek parte hartuta, ebazpen hau eman du 124-ZEH-2015 zenbakiko espedientean, Arabako Errioxako Arkitektoei buruzkoa bera.

I. AURREKARIAK

2. 2015eko maiatzaren 5ean, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) bere erregistroan jaso zuen EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAREN (EHAEO) salaketa bat, zeinean Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea (LDL) urratu izanaren susmoa aipatzen baitzen; hain zuzen ere, proiektu-idazketan eta obra-zuzendaritzan norgehiagoka *de facto* desagerraraztea MAÑUETA, ELCIEGO, LAGUARDIA, LEZA, MOREDA, NAVARIDAS, SAMANIEGO ETA VILLABUENA udalerrietan .



Hau zioen salaketak:

Egiaztatu da enkargu ia guztiak, alde batera utzita, adierazi bezala, planeamendu- eta urbanizazio-proiektuak eta oniritzirik behar ez duten beste proiektu batzuk, bi arkitektoen esku geratzen direla: Iñigo Melero Alonso jauna eta Luis Ignacio Hernández Mayoral jauna, nor bere kasa edo elkarrekin edo harremana duten beste arkitekto batzuekin jardunda.

Jarduteko modu hori, *a priori*, ez litzateke lehia askearen gaineko legeen kontrakoa izango, baina kontua da bi-biak salatu udalen udal-aholkulari direla.

Esaterako, Melero jauna aholkulari-lanetan aritzen da Samaniegon, Guardian, Lezan, Villabuenan eta Navaridasen, eta Hernández Mayoral jauna, berriz, Mañuetan, Elciegon eta Moredan.

Salaketatik ondoriozta zitekeenaren arabera, kolusio-akordio bat egongo litzateke, ustez, Arabako udal horien eta udal horietan, BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAREN bitartez, hirigintzako aholkularitza tekniko eskaintzen duten arkitektoen artean. Akordio hori, egotekotan, LDLren 1. artikularen aurka lihoake.

3. 2015eko maiatzaren 18an, jasotako salaketaren ondorioz, Ikerketa Zuzendaritzak informazio erreserbatuko izapide bati ekin zion.

4. 2015eko azaroaren 16an, Ikerketa Zuzendaritzak honako informazio hau eskatu zien salatu udalei:

- 2000. urtetik gaur arte udalerrian egin diren enkarguen zerrenda, proiektua idaztea eta/edo obra zuzentzea barne hartzen dutenak kontuan hartuta, eta alderdi hauek zehaztuta: data, enkargu-mota, aurrekontua eta profesional arduradunaren izena.

- 2000. urtetik gaur arte udalean lan profesionalak egin dituzten arkitektoen zerrenda, udal plantillakoak diren edo kanpo-aholkularitzako lanetan diharduten zehaztuta (barnean hartuta, hala badagokio, estudioak edo arkitekto-kabinete kolektiboak).

Aipatu informazioa egun hauetan bidali zen: 2015eko abenduaren 28an eta 29an, eta 2016ko urtarrilaren 14an, otsailaren 4an eta 24an eta martxoaren 2an eta 7an.

5. 2016ko urtarrilaren 11n, LEAREN erregistroan sartu zen Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren idazki bat (urtarrilaren 4ko irteera zeraman). Horren arabera, 2015eko abenduaren 2an, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO, 141. zk.) argitara eman zen iragarki bat BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLARENA (kuadrilla horretakoak dira salatu diren udalak), lehiaketa publiko ireki bidez kontratatzeko arkitekto bidezko hirigintza-aholkularitza teknikoa.

EHAEOren iritzian, iragarkiaren edukia eta bertan jasota dauden oinarriak ikusita, lehia askearen urraketa ondorioztatzen da.

Idazki horretatik ondorioztatzen zen kolusio-akordio bat egina luketela BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAK eta aipatu arkitektoek, eta, ustez, horiek



kontratatzera bideratuta legokeela lizitazio oro. Beraz, LDLren 1. artikuluan jasotako kasuetako bat litzateke.

6. 2016ko ekainaren 2an, Ikerketa Zuzendaritzak BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLARI honako informazio hau eskatu zion:

- Arkitekto bidezko hirigintzako aholkularitza-zerbitzua kontratatzeke lehiaketa-espedienteen kopia osoak, 2000 urtetik aurrerakoak.

Aipatu informazioa 2016ko ekainaren 6an bidali zen.

7. 2016ko irailaren 21ean, Ikerketa Zuzendaritzak BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLARI honako informazio hau eskatu zion:

- Zerbitzu profesionalen errentamendu-kontratua, 2004ko urtarrilaren 1ekoa.
- 2010-2015 aldiko hirigintza-aholkularitzako zerbitzu profesionalak kontratatzeke administrazio-espedienteen kopia osoak, aurkeztu ziren eskaintza guztiak eta kontratazio-mahaiak sortutako dokumentazio guztia barne.
- Aholkularitzako teknikoko zerbitzuaren egutegiak, 2006., 2008., 2009. eta 2010. urtetakoak.
- 2016erako hirigintza-aholkularitzako zerbitzu profesionalak kontratatzeke administrazio-espedientearen egungo egoera, horri lotuta egon daitekeen dokumentazio berria barne.

Aipatu informazioa 2016ko urriaren 3an bidali zen.

8. 2018ko maiatzaren 28an, Ikerketa Zuzendaritzak ohar laburra igorri zion Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Lehiaren Zuzendaritzari, antzemandako jokabideak azaltzeko, otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorri (Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko Legea), eta LEAk jokabideak aztertzeke eskumena zuela adierazi zuen ohar hartan.

2018ko ekainaren 6an, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren ofizioa jaso zen, non, jasotako proposamenari jarraikiz, gertaera jakin horiek aztertu eta ebazteke eskumena LEAri zegokiola esaten zen.

9. 2018ko ekainaren 29an, LEAren erregistroan sartu zen EHAEOn salaketa-zabalpen bat, datu gehiago eskainita. Salatzailearen ustez, datuokin frogatuta legoke salatu udalek lehia askearen aurkako jokabidea izan dutela.

10. 2018ko uztailaren 2an, Ikerketa Zuzendaritzak honako informazio hau eskatu zien salatu udalei:



- 2015. urtetik (2015a barne) gaur arte udalerrian egin diren enkarguen zerrenda, proiektua idaztea eta/edo obra zuzentzea barne hartzen dutenak kontuan hartuta, eta alderdi hauek zehaztuta: data, enkargu mota, aurrekontua eta profesional arduradunaren izena.

- 2015. urtetik (2015a barne) gaur arte udalean lan profesionalak egin dituzten arkitektoen zerrenda, zehaztuta udal plantillakoak diren edo kanpo-aholkularitzako lanetan diharduten (barnean hartuta, hala badagokio, estudioak edo arkitekto-kabinete kolektiboak).

Aipatu informazioa 2018ko uztailaren 12tik abuztuaren 3ra bitartean bidali zuten.

11. 2018ko uztailaren 2an, Ikerketa Zuzendaritzak BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLARI honako informazio hau eskatu zion:

- Hirigintza-aholkularitzako zerbitzua kontratatzekeko administrazio-espeditenteen kopia osoak, 2017. urtetik aurrerakoak (2017a barne), barnean hartuta aurkeztu diren eskaintza guztiak eta kontratazio-mahaia sortutako dokumentazio guztia.

Aipatu informazioa 2018ko uztailaren 25ean bidali zuten.

12. 2019ko martxoaren 13an, Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa-zuzendariak proposamena egin zuen, zehapen-espeditenteari ekin ez, eta salaketa artxibatzekoa. Proposamen hori 2019ko martxoaren 14an helarazi zitzaion formalki Lehiaren Euskal Kontseiluari.

II. ERAKUNDE INPLIKATUAK

13. BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLA (IFZ: G01109792) Arabako lurralde-erakunde bat da, hamabost udalerriz osatua: Baños de Ebro/Mañueta, Kripan, Elciego, Elvillar/Bilar, Labastida/Bastida, Laguardia, Lanciego/Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda de Álava/Moreda Araba, Navaridas, Oyón-Oion, Samaniego, Villabuena de Álava/Eskuernaga eta Yécora/Iekora. Guardian du egoitza (Gasteizko errepidea 2, PK: 01300).

Kuadrillak instituzionalizatu zituen Kuadrillei buruzko 63/1989 Foru Arauak, azaroaren 20koak¹. Arabako lurraldea zazpi kuadrillaz osatuta dago. Biasteri-Arabako Errioxa kuadrillaz gain, beste hauek daude:

- Vitoria-Gasteiz kuadrilla (Vitoria-Gasteiz udalerrria)
- Aiarako kuadrilla (Amurrio, Artziniega, Ayala/Aiara, Laudio/Llodio eta Okondo udalerrriak)
- Arabako Lautada kuadrilla (Alegría-Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Elburgo, Iruraitz-Gauna, Agurain/Salvatierra, San Millán/Donemiliaga eta Zalduondo udalerrriak)

1



- Zuiako kuadrilla (Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia)
- Añana kuadrilla (Añana, Armiñón, Berantevilla, Kuartango, Iruña Oka/Iruña de Oca, Lantarón, Erriberagoitia/Ribera Alta, Ribera Baja/Erribera Beitia, Valdegovía/Gaubea eta Zambrana udalerriak)
- Kanpezu-Arabako Mendialdea kuadrilla (Arraia-Maeztu, Peñacerrada-Urizaharra, Harana/Valle de Arana, Bernedo, Lagrán eta Campezo/Kanpezu)

Hauek dira kuadrilletako organo zuzendariak:

- Kuadrillako Batzarra, hura osatzen duten udalerrietako udalbatzek zinegotzien artean izendatutako batzarkideez osatua, eta
- Presidentea.

- 14. MAÑUETAKO UDALA** (IFZ: P0101200D; helbidea: Udaletxe plaza 5, Mañueta, 01370).
- 15. ELCIEGOKO UDALA** (IFZ: P0102300A; helbidea: Plaza Nagusia 1, Eltziego, 01340).
- 16. LAGUARDIAKO UDALA** (IFZ: P0103300J; helbidea: Plaza Nagusia 1, Guardia, 01300).
- 17. LEZAKO UDALA** (IFZ: P0103600C; helbidea: Herriko plaza 1, Leza, 01309).
- 18. MOREDA ARABAKO UDALA** (IFZ: P0104200A; helbidea: Gurutze kalea 1, Moreda Araba, 01314).
- 19. NAVARIDASEKO UDALA** (IFZ: P0104400G; helbidea: Fabulista Samaniego z.g., Navaridas, 01307).
- 20. SAMANIEGOKO UDALA** (IFZ: P0105800G; helbidea: Sor Felicias kalea 1, Samaniego, 01307).
- 21. VILLABUENAKO UDALA** (IFZ: P0106600J; helbidea: Herreria kalea 15, Villabuena, 01307).



III. EGITATE FROGATUAK

22. BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAK aldian-aldian lizitatzen ditu, lehiaketa ireki bidez, kuadrillako udalerrietan arkitekto bidezko hirigintza-aholkularitzako zerbitzu teknikoak ematea².

Hiru lote hartzen ditu barnean kontratuak: Laguardia, Samaniego, Navaridas, Villabuena eta Leza (1. lotea), Lapuebla de Labarca, Elvillar, Lantziego, Kripán eta lekora (2. lotea) eta Oion, Mañueta, Moreda eta Eltziego (3. lotea).

LOTE 1:

| AYUNTAMIENTO | DIAS HABILES | HORARIO |
|--------------|-------------------------|---------------------|
| LAGUARDIA | Lunes, jueves y viernes | De 8:00 a 15:00 h. |
| | Martes | De 13:30 a 15:00 h. |
| SAMANIEGO | Martes | De 8:30 a 11:30 h. |
| NAVARIDAS | Martes | De 11:30 a 13:30 h. |
| VILLABUENA | Miércoles | De 8:30 a 11:30 h. |
| LEZA | Miércoles | De 11:30 a 15:00 h. |

LOTE 2:

| AYUNTAMIENTO | DIAS HABILES | HORARIO |
|---------------------|--------------|---------------------|
| LANCIEGO | Lunes | De 8:00 a 12:00 h. |
| | Jueves | De 12:30 a 15:00 h. |
| ELVILLAR | Lunes | De 12:00 a 15:00 h. |
| LAPUEBLA DE LABARCA | Miércoles | De 8:00 a 15:00 h. |
| KRIPAN | Jueves | De 8:00 a 9:30 h. |
| YECORA | Jueves | De 9:30 a 12:30 h. |

LOTE 3:

| AYUNTAMIENTO | DIAS HABILES | HORARIO |
|---------------|--------------|--|
| OYON-OION | Lunes | De 11:00 a 15:00 h. |
| | Miércoles | De 12:00 a 15:00 h. |
| | Jueves | De 8:00 a 15:00 h. |
| | Viernes | 3 viernes al mes De 8:00 a 15:00 h. |
| ELCIEGO | Martes | De 8:00 a 15:00 h. |
| | | 1 viernes al mes De 8:00 a 15:00 h. |
| MOREDA | Miércoles | De 8:00 a 12:00 h. |
| BAÑOS DE EBRO | Lunes | De 8:00 a 11:00 h. |

23. Hirigintzako aholkularitza-zerbitzu teknikoak funtzio hauek ditu, besteak beste:

- A) Kuadrillako hirigintzako aholkularitza-zerbitzu teknikoko gainerako profesionalekin elkarlanean aritzea eta haien egitekoak osatzea.
- B) Herritarrei arreta ematea, eta aholkua hirigintzako kontsultetan, betiere legeak goi-mailako arkitektoei ematen dizkien eskumenen barnean.
- C) Beren eskumenen esparruan, egiteko teknikoei loturiko gaien gaineko informazioa eta irizpenak ematea; batez ere, lizentziei eta hirigintzako legerian zehaztutako orotariko hirigintza-espeditenteei buruzkoak.

² https://www.araba.eus/botha/Boletines/2009/129/2009_129_07740.pdf
https://www.araba.eus/botha/Boletines/2015/141/2015_141_05182_E.pdf
https://www.araba.eus/botha/Boletines/2017/011/2017_011_00240_E.pdf
https://www.araba.eus/botha/Boletines/2017/101/2017_101_03138_E.pdf



- D) Beren eskumenen esparruan, udal-barrutietan egiten diren obrak bisitatu, ikuskatu eta kontrolatzea, emandako lizentzian jasota dauden baldintzak eta betekizunak betetzen diren egiaztatzeko.
- E) Beren eskumenen esparruan, eta ekonomia-, efikazia-, efizientzia eta bizkortasun-printzipioei jarraikiz, hirigintzako legaltasuna eta egokitzapena berrezartzeko behar diren izapide administratibo eta teknikoak proposatu eta bultzatzea.
- F) Aipatu udaletxetako alkateei, agintariei eta funtzionarioei laguntza eta aholku ematea, erakunde publikoak bisitatzean.
- G) Bere iritzian, egin edo konpondu behar diren egoerak azaltzea, lurralde-antolamenduari zuzenean edo zeharka eragiten diotelako; hirigintza-zerbitzu publikoak egokitzea eta zuzentzea, azpiegitura publikoak..., eta, behar badira, neurri zuzentzaileak proposatzea.
- H) Balioespenak, neurketak eta aurrekontuak egitea eta zuinketetara joatea.
- I) Deia jasotako bilera eta ekitaldi guztietara joatea.
- J) Udal-obren eta -ekintzen betearazpena gainbegiratzea, behar diren argibideak emanda zuzendaritza fakultatiboari, obrak hirugarren bati kontratatu bazaizkio eta beste fakultatibo batek zuzentzen baditu.
- K) Eskatzen bazaio, udal-obren eta -ekintzen zuzendaritzaz arduratzea, giza baliabide eta baliabide material erabilgarriak behar bezala prestatuz eta antolatuz, udal-administrazioak berak zuzenean egin beharreko lanetan.
- L) Bere eskumenen esparruan, Biasteri-Arabako Errioxa kuadrillako presidentetzak agindutako gainerako lanak.

24. 2015eko abenduaren 2an, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (141. zk.) argitara eman zen arkitekto bidezko hirigintzako aholkularitza-zerbitzua lehiaketa ireki arruntaren bidez kontratatzeko lehiaketa. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu zuen lizitazioaren aurka 2015eko abenduaren 11n.

2016ko otsailaren 17an, kuadrillako aholkulari juridikoak txosten bat egin zuen, ondorio hauek aterata:

(...) **zati batean onetsi behar da** aurkeztu den berraztertzeko errekurtsioa; onartu egin behar da hamabosgarren klausulari buruzko alegazioa, hots, irizpide objektiboen artean sartzea, prezioaz gain, hirigune historikoaren BIPBa duten 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan proiektu-idazketan eta obra-zuzendaritzan, eta hirigintza-zerbitzuen prestazioan esperientzia izatea.

Era berean, onetsi egin behar da formula bidez ebaluatzekoak ez diren balorazio-irizpideen gainekoa, ez baitira aurrez zehaztutako irizpideak ezarri, eta puntuazio-irizpideak aldeztu aurretik ezarri edo zehaztu behar dira.

Ezetsi egingo da errekurtsioa hautaketan parte hartu ahal izateko eskatutako betekizunei dagokien alderdian, izan ere, udaletxeek eskubidea dute udal-esparru espezifikoan eskarmentudun profesionalak edukitzearen eskakizuna ezartzeko.



2016ko martxoaren 7an, BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAKO Obra eta Zerbitzuen Informazio Batzordeak txosten juridikoa berretsi eta plegu berri bat onartu zuen.

Zati batean onetsi zenez errekurtsua, administrazio-klausula partikularren plegua honela aldatu zen:

PLEGU ZAHARRA

15. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Hauek dira lehiaketa esleitzeko oinarritzat hartu behar diren irizpideak, dagokien haztapenarekin:

| BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK | | PUNTUAK |
|--|---|---|
| IRIZPIDE OBJEKTIBOAK | 1. Irizpide ekonomikoa. Eskaintako lizitazio-tasarekiko beherapenaren balorazioa. | Puntu bat lizitazio-tasa beheratzen den 0,05 €-ko. Gehieneko puntuen guztizkoa, kontzeptu horren arabera eta lizitatzailerako: 50 puntu. |
| | 2. Proiektu-idazketa edo eraikuntza- edo urbanizazio-obren zuzendaritza egin izana administrazio publikoentzat 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerritan. | Proiektu horiek baloratzeko, 0,5 puntu emango dira kontrata-betearazpeneko 100.000 euroko (BEZarik gabe), 25 puntuko gehienekoarekin. |
| | 3. Hirigintza-zerbitzuak eskaini izana hirigune historikoaren BIPBa duten 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerritan. | Puntu bat emango da hirigintza-zerbitzuko urte bakoitzeko, 10 puntuko gehienekoarekin. |
| FORMULA BIDEZ EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK | Zerbitzuaren funtzionamendu-proiektua eta kontratuaren xedearen kalitatea hobetzeko plana. Proiektua baloratzeko, kontuan izango dira lizitatzailerak aurkeztu duen proiektuan adierazi dituen alderdi hauek: zerbitzuari loturiko esparruaren gainean duen ezagutza, baldintza-agirian adierazitako zerbitzuan oinarrituta hartutako konpromiso bereziak edo proposatutako hobekuntzak, etab. | Gehieneko puntuen guztizkoa, kontzeptu horren arabera eta lizitatzailerako: 15 puntu. |

**17. IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

(...) Esperientzia: Kontratua betearzteari atxikiko zaizkion langileek eskarmentua izan beharko dute hirigintzako aholkularitza teknikoko lanetan, eta hirigintza-planeamenduko agiriak idazten eta izapidetzen arituak edo parte hartutakoak izan beharko dira, toki-administrazioko arkitekto-lanetan, gutxienez 4.000 orduz, zerbitzu-kontratu administratiboa izan badute, edo lanaldi osoko 600 egun naturalez, lan-kontratua edo funtzionario- edo estatutu-harremana izan badute azken bost urtean. Aipatu eskarmentua eskuratutzat hartuko da, baldin eta hirigintzako aholkularitza-zerbitzu teknikoak eman badira arkitekto gisa, edozein dela ere administrazio-kontratua, lan-kontratua edo estatu-harremana. Esperientzia hori egiaztatzeari dagokionez, organo eskudunak emandako edo zigilatutako ziurtagiriak baliatuko dira, zeinetan jasoko baitira lanegun kopurua eta lanaldi mota, lan-, funtzionario- edo estatu-harremanen kasuan, eta lanordu kopurua, zerbitzu-kontratuen kasuan.

PLEGU BERRIA**15. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.**

Hauek dira lehiaketa esleitzeko oinarritzat hartu behar diren irizpideak, dagokien haztapenarekin:

| BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK | | PUNTUAK |
|---|---|---|
| IRIZPIDE OBJEKTIBOAK | 1. Irizpide ekonomikoa. Eskaintako lizitazio-tasarekiko beharpenaren balorazioa. | Puntu bat lizitazio-tasa beheratzen den 0,05 €-ko. Gehieneko puntuen guztizkoa, kontzeptu horren arabera eta lizitatzailerako: 60 puntu. |
| FORMULA BIDEZ EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK | Zerbitzuaren funtzionamendu-proiektua eta kontratuaren xedearen kalitatea hobetzeko plana. Puntuak emateko, alderdi hauek hartuko dira kontuan: - Zerbitzu-esparrua ezagutzea: 20 puntu. - Zerbitzuaren funtzionamendu-proposamena: 10 puntu. - Administrazioari arreta emateko lanen antolaketa-proposamena: 5 puntu. - Herritarrei arreta emateko lanen antolaketa-proposamena: 5 puntu. | Gehieneko puntuen guztizkoa, kontzeptu horren arabera eta lizitatzailerako: 40 puntu. |

17. IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK



(...) Esperientzia: Kontratua betearazteari atxikiko zaizkion langileek eskarmentua izan beharko dute hirigintzako aholkularitza teknikoko lanetan, eta hirigintza-planeamenduko agiriak idazten eta izapidetzen arituak edo parte hartutakoak izan beharko dira, toki-administrazioko arkitekto-lanetan, gutxienez 4.000 orduz, zerbitzu-kontratu administratiboa izan badute, edo lanaldi osoko 600 egun naturalez, lan-kontratua edo funtzionario- edo estatutu-harremana izan badute azken bost urtean. Aipatu eskarmentua eskuratutzat hartuko da, baldin eta hirigintzako aholkularitza-zerbitzu teknikoak eman badira arkitekto gisa, edozein dela ere administrazio-kontratua, lan-kontratua edo estatu-harremana. Esperientzia hori egiaztatzeari dagokionez, organo eskudunak emandako edo zigilatutako ziurtagiriak baliatuko dira, zeinetan jasoko baitira lanegun kopurua eta lanaldi mota, lan-, funtzionario- edo estatu-harremanen kasuan, eta lanordu kopurua, zerbitzu-kontratuen kasuan.

Gainera, esperientzia izan beharko dute hirigune historikoaren BIPBa duten 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan administrazio publikoentzako proiektuen idazketan edo, eraikuntza- edo urbanizazio-obren zuzendaritzan, baita hirigune historikoaren BIPBa duten 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako hirigintza-zerbitzuen prestazioan ere.

25. 2017ko urtarrilaren 27an argitaratu zen ALHAOren 11. zenbakian “Arkitektoak egindako hirigintza-aholkularitzarako zerbitzua kontratatzeke lehiaketa, prozedura irekiaren eta ohikoaren bidez”.

Horren harira, EHAEOK txosten bat igorri zuen 2017ko otsailaren 2an. Ondorioz, 2017ko irailaren 4an argitaratu zen ALHAOren 101. zenbakian, aldatuta, “Arkitektoak egindako hirigintza-aholkularitzarako zerbitzua kontratatzeke lehiaketa, prozedura irekiaren eta ohikoaren bidez”. Kontratuaren iraupena aldatu zen, honela aldatu ere:

IRAGARKIA, 2017ko urtarrilaren 17koa.

6. Kontratuaren iraupena: urtebete, gehienez urte bateko lau luzapen egiteko aukerarekin. Kontratuak ez du inola ere bost urtetik gorako iraupena izango.

IRAGARKIA, 2017ko irailaren 4koa.

6. Kontratuaren iraupena: urtebete, beste urte bat luzatzeko aukerarekin. Kontratuak ez du inola ere bi urtetik gorako iraupena izango.

Halaber, administrazio-klausula partikularren plegua aldatu zen, honela:

PLEGU ZAHARRA

7.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO BERMEAK, ETA ASEURUA.

(...) 7.2.- Erantzukizun-asegurua. Adjudikaziodunak erantzukizun zibileko asegurua aurkeztu beharko du kontratua sinatzeko unean. Aseguru horrek lanbidearen berezko arriskuak estali beharko ditu: gutxienez 300.000 euro ezbehar bakoitzeko.

17. IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Titulazioa: Kontratua betearazteari atxikiko zaizkion langileek goi-mailako arkitekturako lizentzia-titulu ofiziala izan beharko dute.

Esperientzia: Kontratua betearazteari atxikiko zaizkion langileek eskarmentua izan beharko dute hirigintzako aholkularitza teknikoko lanetan, eta hirigintza-planeamenduko agiriak idazten eta izapidetzen arituak edo parte hartutakoak izan beharko dira, toki-administrazioko arkitekto-



lanetan, gutxienez 4.000 orduz, zerbitzu-kontratu administratiboa izan badute, edo lanaldi osoko 600 egun naturalez, lan-kontratua edo funtzionario- edo estatu-harremana izan badute azken bost urtean.

Aipatu eskarmentua eskuratutzat hartuko da, baldin eta hirigintzako aholkularitza-zerbitzu teknikoak eman badira arkitekto gisa, edozein dela ere administrazio-kontratua, lan-kontratua edo estatu-harremana. Esperientzia hori egiaztatzeari dagokionez, organo eskudunak emandako edo zigilatutako ziurtagiriak baliatuko dira, zeinetan jasoko baitira lanegun kopurua eta lanaldi mota, lan-, funtzionario- edo estatu-harremanen kasuan, eta lanordu kopurua, zerbitzu-kontratuen kasuan.

Gainera, esperientzia izan beharko dute hirigune historikoaren BIPBa duten 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan administrazio publikoentzako proiektuen idazketan edo, eraikuntza- edo urbanizazio-obren zuzendaritzan, baita hirigune historikoaren BIPBa duten 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako hirigintza-zerbitzuen prestazioan ere.

PLEGU BERRIA

7.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO BERMEAK, ETA ASEGURUA.

(...) 7.2.- Erantzukizun-asegurua. Adjudikaziodunak erantzukizun zibileko aseguruua aurkeztu beharko du kontratua sinatzeko unean. Aseguru horrek lanbidearen berezko arriskuak estali beharko ditu: gutxienez 100.000 euro ezbehar bakoitzeko.

17. IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Titulazioa: Kontratua betearazteari atxikiko zaizkion langileek goi-mailako arkitekturako lizentzia-titulu ofiziala izan beharko dute.

Esperientzia: Kontratua betearazteari atxikiko zaizkion langileek lan-esperientzia izan beharko dute kontratazioaren xedeko lanen antzekoetan.

Kontratazioaren xedeko lanen antzekoetan gutxienez hiru urteko esperientzia izan beharko dute. Lan-kontratudunek urte horietako bakoitzean gutxienez urtean 800 orduko lan-kontratua izan dutela egiaztatu beharko dute, eta zerbitzu-kontratudunek, aldiz, azken bost urtean gutxienez 800 orduko urteko fakturazioa izan dutela.

26. Lizitazio horietan, BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAREN kontratazio-mahaiak Arabako Foru Aldundiaren Hirigintza Zerbitzuaren laguntza teknikoa izan du. Aipatu zerbitzuak txosten tekniko bat egin zuen aurkeztutako eskaintzen gaineko balorazio-irizpideen balorazioari buruz.

27. BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAREN lizitazioen ondorioz, hainbat profesional jardun dira kuadrillako udaletxeei hirigintzako aholkularitza-zerbitzu teknikoak eskaintzen.



IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Subjektu inplikatuaren izaera juridikoa

28. LDLren laugarren xedapen gehigarria hau dio:

1. Lege honetan xedatutakoetarako, enpresatzat hartzen da jarduera ekonomiko bat egiten duen edozein pertsona edo erakunde, erakunde horren estatutu juridikoa eta finantzatzeko modua dena delakoa izanik ere.

29. Espediente honen xede diren administrazioek –kuadrilla eta udalak– eragile ekonomikoaren izaera duten aztertu behar da.

Horri buruz, Auzitegi Gorenak maiz nabarmendu du administrazio publikoak lehiaren defentsarako araudiaren mende daudela zeharo, eta, horrenbestez, eragile ekonomikoaren izaera dutela. Adibidez, Auzitegi Gorenaren 2007ko ekainaren 19ko epaiak (ECLI: ES:TS:2007:4763), hau zioen:

(...) administrazio publiko gisa diharduten administrazio publikoek lehia-eskubidearen gainean duten jardunari [dagokionez], esan behar da araudi horren mende daudela zeharo administraziook, eta ez dio kontrakoa Lehiaren Defentsarako Legearen 10. artikulua hitzez hitz hartuta, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak horixe argudiatu arren. Baike, manu hori eragile ekonomikoari buruz ari denean, ez da ulertu behar manu horretan bertan zehaztutako zehapenetatik bat jaso dezaketen zuzenbide pribatuko eragileei buruz soilik ari denik, eta zuzenbide administratiboaren mende daudenak salbuesten direnik; izan ere, eragile ekonomiko deritza **merkatuan diharduen edozein subjektu**ri, baita, beraz, administrazio, erakunde eta sozietate publikoari ere, nahiz eta horiek zuzenbide administratiboaren mende egon gutxiago edo gehiago.

Edo Auzitegi Gorenaren 2013ko ekainaren 14ko epaiak (ECLI: ES:TS:2013:3139), ildo beretik:

Aurreko horiek guztiek ez dute baliorik, ordea, **edozein administrazio publikoren jarduna imperium eskumenen arabera izan beharrean, merkatuan parte hartu eta, beste eragile batzuekin lehiari, bere zerbitzuak eskaintzen dituen eragile ekonomikoarena denean**. Errekurtsioa jarri duen udalak berak onartzen duen moduan, «Administrazioak gainerako eskubide-subjektuen, operadoreen edo eragileen jokabidea bezalakoa badu merkatuan, Lehiaren Defentsarako Legean jasotako debekuak bete beharko ditu, gainerakoek bezala». Azken ondorio hori guztiz zuzena ez dela esan badugu ere –izan ere, Administrazioak Lehiaren Defentsarako Legean xedatzen diren debekuak bete behar ditu, non eta bere ekintzak ez dauden berariaz babestuta lerrun bereko beste arau batean–, baliagarria da eztabaida errekurtsogileak darabiltzan terminoetara ekartzeko. Hala, hizpide dugun kasuan, kontua da ebaztea udala (...) ahalmen administratiboaren arabera edo eragile ekonomiko gisa aritu zen.

Azkenik, Auzitegi Gorenaren 2016ko uztailaren 18ko epaiak (ECLI: ES:TS:2016:3525) adierazi zuenez:



(...) lehiaren zuzenbidearen esparruan, enpresaren kontzeptu zabal eta funtzional bat erabiltzen da; hala, **garrantzitsuena ez da jokabidea duen subjektuaren estatus juridiko eta ekonomikoa, baizik eta bere jokabideak merkatuaren lehia emaitza ekonomikoki kaltegarria edo mugatzailea eragitea edo eragiteko bidea ematea.** (...) Zalantzarik gabe, **kasu batzuetan, lehia-eskubidearen balizko urraketa hori modu formalean egindako administrazio-egintza bat denez, edo xedapen orokor bat,** Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak –edo, hala dagokienean, lehiaren defentsako eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako organoek– xedapena edo **egintza aurkaratu beharko du** administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, 15/2007 Legearen 12.3 eta 13.2 artikuluetan xedatutakoarekin bat. Lehiaren defentsako agintarien erreakzio-gaitasuna baina, ezin daiteke aurkaratze-bide horretara mugatu (...).

30. Horrenbestez, administrazio publikoak merkatuan parte hartu eta, gainerako eragileekin lehia, bere zerbitzuak eskaintzen dituzten eragile ekonomiko gisa jardunez gero, LDLren aplikazio-eremu subjektiboan sartzen dira, eta arau-hauste baten erantzule deklaratu daitezke.

Kontrara, administrazio publikoek bere eskuduntza publikoak baliatuz dihardutenean, lehia-agintaritzek legitimazio aktiboa erabili behar dute –LDLren 13.2 artikulua eta, gurean, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.4 artikulua emandakoa– administrazio-egintzak edo erregelamendu-xedapenak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko, edo sustapen-lanak egin ditzakete aipatu administrazioon aurrean, merkatuan lehia iraunarazi edo berrezartzeko proposamenak igorrita haiei.

Era berean, administrazio publikoek kontratazio-organo gisa badihardute lizitazio publikoko prozeduren bitartez, beren funtzio publikoen arabera jokabidea dute halaber, eta kontratuen legeriaren mende daude. Legeria horrek hainbat erreakzio-mekanismo berezko dauzka –errekurtso berezia– lehia mugatzen den kasuetarako, baita lehia-agintarien legitimazio aktiboa ere.

Alabaina, LDLren urraketa egotz lekieke administrazio publikoei, eskuduntza publiko horiek gainditzeko lehiaren aurkako itun baten mesedetan³.

2. Enkarguen izaera juridikoa

31. Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bateginak, Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zenak –indarrean, aztertu den aldi–, hau zioen:

³ LEA/AVC-ren Ebazpena, 7/2013 espedientea, Arabako Obra Publikoak.

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/eu_resoluci/Eusk%20RESOLUCION%20arabako%20lanak%20definitiva%20sin%20firmas.pdf .

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ebazpena, S/0167/09 espedientea, Jerezko mahats eta ardoaren ekoizleak.

https://www.cnmc.es/sites/default/files/86308_6.pdf



196. artikulua Kontzeptua.

1. Lege honekin arautuko dira administrazioak egin ditzan aholkularitza- eta laguntza-kontratuak, bai eta zerbitzu-kontratuak ere.

2. Aholkularitza- eta laguntza-kontratuak xede hauek dauzkate:

a) Teknika, antolaketa, ekonomia zein gizartearen ikuspegiko txostenak, azterlanak, planak, aurreproiektuak eta proiektuak aztertu eta egitea; eta obrak eta instalazioak egin, bere onean mantendu eta antolaketa-sistemak zuzendu, gainbegiratu eta kontrolatzea.

b) Administrazioarekin lankidetzan arituz, eta bera gainbegirale dela, prestazio hauek burutzea:

1.a Edozein lan tekniko egiteko ikerketa eta ikerlanak.

2.a Ondasun publikoak kudeatzeko eta zerbitzu publikoak antolatzeko aholkua.

3.a Proiektuak eta aurreproiektuak, eta horien aldaketak idazteko azterlanak eta laguntza, eta obren eta instalazioen, eta antolaketa-sistemen ezarpenaren zuzendaritza, ikuskaritza, kontrola eta mantentze-lanak.

4.a Aurrekoekin zuzenean nahiz zeharka lotutako beste edozein prestazio ematea, baldin eta horretan ere prestazio intelektualak nagusi badira; batez ere, administrazioak profesionalekin titulu akademikoaren arabera egin dituen kontratuak, baita administrazio publikoetako langileentzako prestakuntza-jardunak garatzeko kontratuak ere.

3. Zerbitzu-kontratuak xede hauek dauzkate:

a) Teknika, ekonomia, industria, merkataritza zein antzeko beste izaeraren bateko zerbitzuak egitea, baldin eta aholkularitza- eta laguntza-kontratuak, edo liburu honetako beste tituluetan araututako kontratuak sartzen ez badira.

201. artikulua Kontratu txikiak.

Titulu honetan bildutako kontratuak kontratu txikitat hartuko dira, baldin eta 2.000.000 pezetatik **(12.020,24 eurotik) gorakoak ez badira**.

32. Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak (30/2007, urriaren 30ekoa) eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginak (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuenak), bi-biak indarrean aztertu den aldian, hau zioten:

Legearen eta TBaren 10. artikulua. Zerbitzu-kontratuak.

Zerbitzu-kontratuak dira objektutzat egiteko prestazio bat dutenak, jarduera bat gauzatuz gauzatzen dena, edo obrak edo horniduraz besteko emaitza lortzera bideratutako egiteko prestazio bat dutenak. Lege honen aplikazioari dagokionez, zerbitzu-kontratuak II. eranskinean adierazten diren kategorietan banatzen dira *[Arkitektura-zerbitzuak; ingeniartzako eta ingeniartzako zerbitzu integratuak, hiri-antolakuntzako zerbitzuak eta paisaia-arkitekturako zerbitzuak. Zientzia- eta teknologia-aholkularitzarekin lotutako zerbitzuak]*.



122. artikulua (TBaren 138. artikulua). Esleipen-prozedura.

(...)

3. Kontratu txikiak zuzenean esleitu ahal izango dira; jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi esleitu ahal izango zaizkio; betiere, 95. artikuluan (TBaren 111. artikuluan) ezarritako baldintzak betez.

Kontratu txikiak 50.000 eurotik **beherakoak** izango dira, baldin eta obra-kontratuak badira, eta **18.000 eurotik beherakoak**, bestelako kontratuak badira.

33. Azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuena bera (horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), hau xedatu du:

17. artikulua Zerbitzu-kontratua.

Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obraz edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak.

Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.

118. artikulua Kontratazio-espeditentea kontratu txikietan.

1. Kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak dira, baldin eta obra-kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira (...).

34. Ondorioz, proiektu-idazketako eta obra-zuzendaritzako kontratuak **zerbitzu-kontratutzat** hartzen dira. Horiek kontratu txikiak bezala izapidetu nahi badira, zenbatekoa hau izan behar da:

- **12.020,24 €** edo txikiagoa (2008ko apirilaren 30era arte, 30/2007 Legea jarri baitzen indarrean orduan).

- **18.000 €** baino txikiagoa (2008ko apirilaren 30etik 2018ko martxoaren 9ra bitartean, 9/2017 Legea jarri baitzen indarrean orduan).

- **15.000 €** baino txikiagoa (2018ko martxoaren 9tik gaur arte).

3. Salatutako jokabidearen azterketa

35. LDLren 1.1 artikulua honako hau xedatzen du:

Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki motak egongo dira debekatuta:



- a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea.
- b) Produkzioa, banaketa, garapen teknikoa edo inbertsioak mugatu edo kontrolatzea.
- c) Merkatua edo hornigaien iturriak banatzea.
- d) Merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezartzea baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragitea beste batzuen aurrean.
- e) Kontratuak hitzartu ahal izateko beste prestazio osagarri batzuk eskaintzeko baldintza jartzea, baldin eta prestazio horien ezaugarriengatik edo merkataritzako ohiturengatik hori eskatzeak ez badu zerikusirik kontratuen helburuarekin.

LDLren 1. artikulua aplikazioak, horrenbestez, eragile ekonomiko ezberdinen arteko borondate-kontzertu bat izatea eskatzen du. Adibidez, Auzitegi Gorenaren 2007ko ekainaren 19ko epaiak (ECLI: ES:TS:2007:4763) zioenez:

Baiki, beraz, Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua hauek aipatzen ditu: «**Aldi anitzeko akordioak edo erabakiak; betiere, borondateen bat-etortze adierazi edo ustezkoen isla direnak**». Manuaren idazkeratik ondorioztatzen da hori, bai eta Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren praktikaren eta sala horren jurisprudentziaren bidez aipatu manuan txertatu diren kasuetatik ere.

A. Udalen aurkako salaketa

36. EHAEOK lehia askerako eskubidea urratu dela salatu du, MAÑUETA, ELCIEGO, LAGUARDIA, LEZA, MOREDA ARABA, NAVARIDAS, SAMANIEGO ETA VILLABUENA udalerrietan proiektu-idazketako eta obra-zuzendaritzako lehia *de facto* desagerraraztearen praktika debekatua gertatu delako; izan ere, proiektu-idazketako eta obra-zuzendaritzako lan ia guztiak bi arkitekto esleitu zaizkie, eta horiek salatu udalen udal-aholkulariak dira.

EHAEOK salatu duenez, kolusio-akordio bat dago, LDLren 1. artikulua barruan sartzeko modukoa beraz, aipatu udalen eta arkitekto batzuen artean, eta arkitekto horiek dira BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAREN bitartez udalotan hirigintzako aholkularitza-zerbitzu teknikoak eskaintzen dituztenak.

37. Informazio erreserbatuari erreparatuta, ez da ikusten halako kolusio-akordio baten inongo aztarnarik. Hala, ez da ikusten salatu udalak eta zerbitzua eskaintzen dieten arkitektoak modu bateratuan eta/edo hitzartuan jardun direnik kasuan kasuko udalerrian arkitektura-lanetarako kontratu txikien merkaturian lehia eragotzi, mugatu edo faltsutzeko.

Salatu udalen jardunbidea aztertuta, ez da ikusten portaera uniformerik dutenik, ezta jokamolde bera ere, aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dizkieten arkitektoekiko, hala hauei emandako enkargu kopuruan nola enkarguon balioan.



Horregatik, adierazi behar dugu ez dagoela LDLren 1. artikulua urratzearen zantzurik, salatu udalei dagokienez.

38. Alabaina, udalok eta beren kontratazio-organoek betekizun berriak aplikatu beharko ditu; alegia, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikuluan kontratu txikien gainean xedatzen direnak.

B. Kuadrillaren aurkako salaketa

39. EHAEOK, halaber, BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLA salatu zuen, lehia askea urratu zuelakoan; elkargoaren iritzian, hori ondoriozta daiteke 2015. eta 2017. urteetan arkitekto bidezko hirigintzako aholkularitza-zerbitzu teknikoa lehiaketa publiko ireki bidez kontratatzeke argitaratutako iragarkien oinarrietatik; izan ere, iragarkiok «salaketan aipatu esparruan eta baldintzetan lehia askea eragotzi izan dutenei aurrez zuzenduta» zeudela uste zuen.

Era berean, EHAEOK salatu zuenez, kolusio-akordio bat egin zuten –Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikuluan xedatutako urrututa– BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAK eta lizitazioak ustez neurrira egin zitzaizkien arkitektoek.

40. Edonola ere, BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAK ez du esku hartzen proiektu-idazketaren eta obra-zuzendaritzen zerbitzuen merkatuan, ez eskaintzaile ez eskatzaile gisan, baizik eta lizitazio publikoko prozedurak deitzen dituen kontratazio-organo gisan; hau da, dagozkion funtzio publikoen esparruaren barne dago bere jarduna, eta kontratu-legerian xedatzen dena bete behar du.

Baiki, kuadrillak arkitekto bidezko hirigintzako aholkularitza-teknikoko zerbitzuen lizitazioak egiten ditu aldi-aldi lehiaketa ireki bidez, ez ordea zerbitzuok kuadrillan bertan emateko, baizik eta kide diren udalerrietan, eta udalerririk horietan zerbitzua emango duen arkitektoa hautatzen du. Esaterako, kontratuak hiru lotetan banatzen dira: Laguardia, Samaniego, Navaridas, Villabuena eta Leza (1. lotea); Lapuebla de Labarca, Elvillar, Lantziego, Kripan eta Iekora (2. lotea) eta Oion, Mañueta, Moreda eta Elciego (3. lotea).

Hori horrela, ezin esan daiteke BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAK merkatuan parte hartu eta, gainerako eragileekin lehiatzen, bere zerbitzuak eskaintzen dituen eragile ekonomikoaren portaera duenik kasu horietan; LDLren urraketa hari eragotzi ahal izateko, kuadrillaren jarduketek esleipen publikokoak gaitzitu beharko lituzkete, eta lehiaren aurkako itun bat izan beharko lukete xede.



41. Alabaina, egitate frogatuetan adierazitakoaren arabera, BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAK zati batean baietsi zuen 2015eko lizitazioaren aurka aurkeztu zen berraztertze errekurtsoa, eta lizitazio horren aholkulari juridikoaren ondorioak bere osoan onartu; alegia, baietsi ez zen errekurtso zatia irizpide soil-soilik juridikoei jarraikiz ezetsi zen, aldeak horiekin bat etorri ala ez.

Baiki, lizitazioaren xedea lehia askea faltsutzea balitz, logikaz, ez luke zati batean baietsiko EHAEoren errekurtsoa eta ez luke aholkulari juridikoaren txostena hitzez hitz onartuko.

Era berean, ez luke bertan behera utziko 2017ko urtarrileko lizitazioa, eta ez luke urte horretako irailean berriz deituko kuadrillak, EHAEoren beraren oharretako batzuk lizitazio horren pleguan txertatu ostean.

42. Gainera, BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAREN kontratazio-mahaiak Arabako Foru Aldundiaren Hirigintza Zerbitzuaren laguntza teknikoa izan du. Aipatu zerbitzuak txosten tekniko bat egin zuen aurkeztutako eskaintzen gaineko balorazio-irizpideen balorazioari buruz.

Ezin ulertu daiteke kuadrillak kolusio-akordio bat egitea, lizitazioak arkitekto jakin batzuen neurrira egiteko, eta balorazio-irizpideen balorazioa beste organo baten esku uztea (Arabako Foru Aldundia), balizko itun horretan esku hartzen ez duten arkitektoen eskaintzek balorazio hobea izateko arriskua legoke eta.

43. Ondorioz, ez da ikusten kolusio-akordiorik egin denik BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAREN eta lizitazioen pleguek mesede egingo lieketen arkitektoen artean, horixe salatu den arren.

Horregatik, deklaratu behar dugu ez dagoela Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikuluaurren urraketa zantzurik BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA KUADRILLAREN jokabidean.

4. Ebazpena emateko eskumena duen organoa

44. LDLren 49.3 artikuluan xedatuenez, Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, hau erabaki dezake: lege horren 1., 2. eta 3. artikuluetan debekaturiko jokabideak ustez gauzatu izanaren ondoriozko prozedurak ez hastea, baita horien jarduerak artxibatzea ere, baldin eta uste badu legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela.

45. Bestalde, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 10. artikulua Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunen artean ezarri du



erabakitzea, hala badagokio, ofizioz hasitako jarduketak edo salaketak artxibatzea, zehapen-espeditente bihurtu baino lehen.

46. Lehia Defendatzeko Erregelamenduak (LDE), otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsia, 25. artikuluan ezarri du, salaketa jarri izanak ez duela lotesten Ikerketa Zuzendaritza zehapen-prozedura abiatu behar dezan. Prozedura ez irekitzeko erabakia salatzaileari komunikatu beharko zaio, azalduz prozedura irekitzea zergatik ez den bidezko.

47. Halaber, LDEren 27. artikulua arabera, Kontseiluak prozedura ez abiatzea eta jarduketak artxibatzea erabaki ahal izateko, Ikerketa Zuzendaritzak hauek helaraziko dizkio: jasotako salaketa, aurrez egindako jarduketak eta, hala badagokio, **artxibatzeko proposamena.**

48. Aurrekoarekin bat eginez, Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espeditenterik ez hasteko eta salaketa artxibatzeko proposamena egin zuen 2019ko apirilaren 16an. Lehiaren Euskal Kontseilu honek Ikerketa Zuzendaritzaren aipatutako proposamena onartu du, ez baitago LDL hautsi izanarenn inolako zantzurik. Ondorioz, ez dagokio zehapen-espeditenterik hastea, LDEren aipatu 27. artikuluaekin bat.

V. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

BAKARRA: Zehapen-prozedurarik ez hastea eta erreferentziako salaketaren harira egin eta izapidetu diren jarduketak artxibatzea, ez delako egiaztatu Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legearen urraketaren baten zantzurik dagoenik.

Komunika bekie ebazpen hau LEA/AVCko Ikerketa Zuzendaritzari, MLBNko Lehiaren Zuzendaritzari, eta jakinaraz bekie salatzaileari eta interesdun guztiei, jakitun egon daitezen ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.